KUETO HLHI

JANTOKIKO ARAUTEGIA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta eremua

Arautegi honek ikastetxeko jantoki-zerbitzuaren antolaketa, funtzionamendua eta erabilera arautzen ditu. Zerbitzuaren erabiltzaile guztiei aplikatuko zaie: ikasleei, haien familiei eta jantokiko langileei.

2. artikulua.– Arau-esparrua

Arautegi hau Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako jantokiei buruzko indarreko araudiaren arabera aplikatuko da, bai eta ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG/OMR) eta Eskola Kontseiluak hartutako erabakien arabera ere. Aurreikusten ez den orotan, indarreko araudia eta ikastetxeko Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia (AFA/ROF) izango dira aplikagarri.

3. artikulua.– Helburuak

Jantoki-zerbitzuaren helburuak hauek dira:

- Zerbitzu segurua, osasungarria eta hezitzailea bermatzea.
- Ikasleen adinera egokitutako elikadura-ohitura osasungarriak sustatzea.
- Jantokiko orduetan elkarbizitza, errespetua eta portaera egokia bultzatzea.
- Ikasleen autonomia eta higiene-ohiturak garatzea.

II. ANTOLAKETA

4. artikulua.– Arduradunak

Jantokiko arduraduna eta Zuzendaritza Taldea dira zerbitzuaren antolaketaren eta gainbegiratze orokorraren arduradunak. Begiraleek ikasleak zaindu eta lagunduko dituzte bazkal orduan eta jantokiko denbora osoan.

5. artikulua.– Edukiera

Jantokiaren gehieneko edukiera 170 ikaslekoa da txanda bakoitzeko.

Hortik gorako kasuetan eskolak barematzeko eskubidea hartuko du (anexoan jarrita)

6. artikulua.– Ordutegia

Asteazkenetan eta iraileko eta ekaineko egunetan (goizeko jardunaldia) jantokiko irteera-ordua 14:45ean da. Familiek puntualtasunez jaso beharko dituzte ikasleak.

Jantoki orduan ateratzeko ordutegi bakarra egongo da 13:30etan (bestela 13:00etan edo 15:00etan ateratzeko ordutegia da. Kasu bakoitzaren kasuistika baloratuko da, eta jantokiko arduraduna jakinaren gainean egon behar da.

Jantoki orduan ezin dira umeak sartu.

III. ERABILTZAILEAK ETA PLAZAK

7. artikulua.– Erabiltzaileak

Jantoki-zerbitzua erabili ahal izango dute ikastetxean matrikulatuta dauden eta plaza eskatu eta esleitua duten ikasleek. Jantokian geratzea borondatezkoa da; zerbitzua erabiltzeak arautegi hau eta ikastetxeko barne-arauak onartzea dakar, bai ikaslearentzat bai familiarentzat.

8. artikulua.– Izena ematea

Izena ematea ikasturte amaieran egingo da, ikastetxeak ezarritako epe eta prozeduren arabera. Plaza esleitzea erabilgarritasunaren eta eskabidea behar bezala formalizatzearen menpe egongo da.

9. artikulua.– Onarpen-irizpideak

Eskaerak edukiera baino gehiago badira, OOGk plazak esleituko ditu indarreko araudiak ezarritako lehentasun-ordenaren arabera:

a. **Ohiko mahaikideak**, ordena honetan:
   1. Garraiorako eskubidea duten ikasleak.
   2. Bekadun ikasleak.
   3. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak.
   4. Jantoki-zerbitzua erabiltzen duten anai-arrebak ikastetxean dituzten ikasleak.

b. **Ohiko mahaikide etenak.**

c. **Aldi baterako mahaikideak.**

10. artikulua.– Plaza galtzea

Ikasle batek hiruhilabete batean justifikatu gabeko hilabete bat baino gehiagoz huts egiten badu jantokian, ikastetxeak bere plaza murrizteko eskubidea gordetzen du.

11. artikulua.– Noizbehinkako erabiltzaileak

Jantokian noizbehinka geratu nahi duten ikasleen familiek 24 ordu lehenago jakinarazi beharko diote jantokiko arduradunari. Larrialdi kasuetan, egun berean jakinaraziko da. Bi kasuetan, oharra emango zaie bai tutoreari bai jantokiko arduradunari.

12. artikulua.– Eskolara etortzea eta txandak

Goizean eskolara etortzen ez den ikasleak ezin izango du bazkal orduan etorri. Ikasle batek eskolatik irten behar badu, ezin izango du bere txandakoa ez den beste txanda batean bazkaldu.

IV. KUOTAK ETA ORDAINKETA

13. artikulua.– Prezioak

Eguneko menuaren prezioa Eusko Jaurlaritzak ezartzen du ikasturte bakoitzerako. Indarreko prezioak eranskinean jasotzen dira.

14. artikulua.– Kuoten kalkulua

Ordaindu beharrekoa kalkulatzeko, ikasturteko jantoki-egunen kopurua (goizeko eta arratsaldeko jardunaldiko lehen egunetik) eguneko menuaren prezioarekin biderkatu eta 8 kuotatan banatzen da.Irailan eta ekainean ez da ordainagiririk kobratzen.

15. artikulua.– Ordainketa-modua

Kuotak banku-helbideratzearen bidez ordainduko dira. Helbideratzerik ez egiteko eskaerak salbuespenez bakarrik onartuko dira.

16. artikulua.– Itzulitako ordainagiriak eta zorrak

Itzulitako ordainagiriak ikastetxean ordainduko zaizkio jantokiko arduradunari. Euro bateko zorra izango dute itzulketa guztiak.

Bi kuota ordaindu gabe geratuz gero, ikastetxeak jantoki-zerbitzua eteteko eskubidea izango du, zor oso hau ordaindu arte.

Aurreko ikasturteetako ordaindu gabeko kuotik badago, ikastetxeak zor hori ordaintzea eskatu ahal izango du izen-emate berria formalizatu arte.

V. MENUAK ETA DIETAK

17. artikulua.– Menuak

Menuak orekatuak eta ikasleen adinerako egokiak izango dira, nutrizio-jarraibide ofizialak kontuan hartuta. Horregatik, ikasleek menuko plater guztietatik jan beharko dute, gustukoen ez dituztenetatik ere, kantitate txikian bada ere.

18. artikulua.– Menu motaren aldaketa

Ikasturte hasieran aukeratutako menu mota aldatzeko epea urriaren 1era artekoa da. Data horretatik aurrera ez da aldaketarik onartuko, behar bezala egiaztatutako osasun-arrazoiengatik izan ezik; kasu horretan, mediku-txostena aurkeztu beharko da.

19. artikulua.– Dieta bereziak

Alergiak, intolerantziak edo bestelako osasun-arrazoiak direla-eta menu berezia behar duten ikasleek idatziz eskatu beharko dute, mediku-txostena edo -ziurtagiria erantsita. Dieta bereziak sendagileak aginduta soilik prestatuko dira.

VI. OSASUNA ETA SEGURTASUNA

20. artikulua.– Gaixotasuna eta istripuak

Ikasle batek gaixotasun-zantzuak baditu (sukarra, ondoeza, zorabioa, gorakoak…) edo istripuren bat izaten badu, familiari deituko zaio berehala.

21. artikulua.– Ikastetxetik irtetea

Jantokiko orduetan ikasleek ezin dute ikastetxetik irten. Ikasle batek ordu horietan irten behar badu, 13:30etan izango da eta familiak aldez aurretik jakinarazi beharko dio jantokiko arduradunari, eta familiako kide bat edo baimendutako pertsona bat etorri beharko da haren bila.

22. artikulua.– Etxera bakarrik joateko baimena

Asteazkenetan eta goizeko jardunaldiko egunetan ikasleak etxera bakarrik joan ahal izateko, familiek tutoreek emandako baimen-inprimakia beteta ekarri beharko dute.

VII. IKASLEEN ARAUAK

23. artikulua.– Ikasleen betebeharrak

Jantokiko ikasleek arau hauek beteko dituzte:

- Jan aurretik eskuak garbitzea eta komunera jantokira sartu aurretik joatea. Bazkal orduan joan behar izanez gero, begiraleari baimena eskatuko zaio.
- Jantokira sartzea eta irtetea lasai eta ordenatuan, zehaztutako lekuetatik.
- Pasabideetan eta jantokian tonu baxuan hitz egitea.
- Bazkaltzean eserita egotea eta, zerbait behar denean, eskua altxatzea mahaiko begiralea etor dadin.
- Menuko plater guztietatik jatea, eta janaririk jantokitik ez ateratzea.
- Elikagai guztietatik gutxienez pixka bat probatzea, eta ezer probatu edo jan gabe inor ez geratzea. Familiarekin batera neurriak hartuko dira kasu bakoitzean.
- Bazkaldu aurretik gozokirik, gailetarik edo bestelako janaririk ez jatea.
- Janaria eta jantokiko tresnak modu egokian erabiltzea, haiekin jolastu gabe.
- Jesarri diren lekuaren mahaia eta zorua ahalik eta garbien uztea.
- Haserretuz gero, mahaitik ez altxatzea eta jantokitik alde ez egitea; arazoren bat izanez gero, begiraleari kontatzea.
- Arazoak hitz eginez konpontzea, ikaskideekin edo begiraleekin borrokatu gabe eta hitz edo keinu itsusirik erabili gabe.
- Instalazioak, besteen eskubideak eta begiraleen jarraibideak errespetatzea.
- Jantokiko orduetan ikastetxetik ez irtetea.

VIII. FAMILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

24. artikulua.– Familien eskubideak

Familiek jantokiaren funtzionamenduari eta seme-alabei dagozkien gorabeherei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dute. Jantokiko arduradunarekin edo begiraleekin hitz egiteko, aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da.

25. artikulua.– Familien betebeharrak

Familiek arautegi hau errespetatu, seme-alabek bete dezaten bultzatu eta zerbitzuaren funtzionamendu egokian lagundu beharko dute. Ikasle batek nahita jantokiko tresnak edo altzariak hondatzen baditu, familiak ordaindu edo ordeztu beharko ditu.

IX. BIZIKIDETZA ETA ARAUAK EZ BETETZEA

26. artikulua.– Bizikidetza

Jantokia gune hezitzailea da eta ikastetxeko bizikidetza-arauak aplikatuko zaizkio.

27. artikulua.– Arauak ez betetzea

Arauak betetzen ez badira edo elkarbizitzari edo besteei kalte egiten dieten portaerak gertatzen badira, AFAn (ROF) jasotako hezkuntza- eta zuzenketa-neurriak hartuko dira. Neurri horien artean egon daiteke jantoki-zerbitzua erabiltzeko eskubidea aldi baterako edo behin betiko etetea

X. GREBAK

28. artikulua.– Zerbitzua greba egoeretan

Greba egoeretan, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideetan agertzen diren moduan gutxieneko zerbitzurik ezartzen ez badu eta jantoki-zerbitzua modu mugatuan eskaini behar bada, lehentasun-ordena hau ezarriko da: lehenik, adin txikieneko ikasleak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak; ondoren, jantoki-beka duten ikasleak; eta azkenik, gainerako ikasleak.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau OOGk onartu ondoren sartuko da indarrean, eta ikastetxeko komunitate osoari jakinaraziko zaio. Ikasturte bakoitzaren hasieran berrikusiko da.

Kurtso honetako bileretan aipatzea gomendatzen da.

ERANSKINA: KUOTAK ETA HARREMANETARAKO DATUAK

Eguneko menuaren prezioa

Ohiko mahaikideak: 4,60 €

Noizbehinkako mahaikideak: 5,20 €

Jantokiko arduraduna (hitzordua eskatzeko): 688 827 430